

AUDIT programaren bilakaera Unibasq-en

Erakunde jakin batek lortutako zerbitzuen kalitate-mailen eta kalitate-ikuspegien autoebaluazioa eta kanpoko ebaluazioa dira diagnostikoa egiteko eta etengabeko hobekuntzako sistema hedatuenetako bat oso sektore desberdinetako erakunde publikoen eta pribatuen artean.

Hezkuntza-eremuan, sistema hau izan da duela urte asko kalitate-mailak ebaluatzeko erabili den sistema tradizionala. Espainiako unibertsitateetan “Ebaluazio Instituzionala” izenekoaren bitartez sartu zen.

Ebaluazio-sistema horrek eskatu zuen laguntzeko egitura-unitate berriak, hots, “Kalitateko Unitate Teknikoak” (KUT) sortzea unibertsitateetan, baina kasu batzuetan ez zekiten unitate horiek nola kokatu ordura arte zeuden erakunde-organigrametan. KUTak, pixkanaka, gorpuzten joan ziren, eta, denborak aurrera egin ahala erakutsi dute unitate horien eginkizunak premiazkoak eta baliagarriak direla organigrama horietan.

Aurreikus zitekeen bezala, kalitatea kudeatzeko sistemak, hasiera batean pixkanaka-pixkanaka hasi ziren arren, hazten eta heltzen joan ziren sistema honen eskutik eta erreferentziazko egitura bihurtu ziren unibertsitate bakoitzaren kalitateari buruzko ikuspegiei eta estrategiari eusteko.

Unibertsitate Prestakuntzaren Kalitatea Bermatzeko Sistemak (KBS) aitortzeko AUDIT programa 2007. urtean sortu zen ANECA, AQU Catalunya eta ACSUG agentzien arteko elkarlanaren ondorio gisa eta agentzia bakoitzak garatutako aurreko ekimenen arabera. Erantsitako taulan ikus daitekeenez, AUDIT programaren ebaluazio-irizpideek guztiz bat egiten dute Goi-mailako Hezkuntzaren Europako Esparruan Kalitatea bermatzeko irizpideekin eta jarraibideekin (ESG).

Programa horrek berehala hartu zuen garrantzia eta unibertsitate guztiak, beren kalitateko unitate teknikoen eskutik, lanean hasi ziren programa horretako planteamenduetara egokitzeko. Hasiera batean proposatu zen egokitzapen hori hiru fase orokorretan egitea unibertsitateek beren KBSak gara zitzaten laguntzeko:

- Orientabideak ematea KBSa diseinatzeko
- KBSaren diseinuaren ebaluazioa
- KBSaren ezarpenaren ziurtagiria

AUDIT	2005eko ESG	2015eko ESG
1.0 jarraibidea. Zentroaren kalitate-politika eta kalitate-helburuak definitzeko modua	1.1 Kalitatea bermatzeko politika eta prozedurak	1.1 Kalitate-politika
1.1 jarraibidea. Zentroko prestakuntza-programen kalitatea bermatzeko modua	1.2. Programa eta tituluaren onarpena, kontrola eta aldiaren behingo berrikuspena	1.2. Programak diseinatu eta onartzea 1.9. Programaren etengabeko segimendua eta aldizkako berrikuspena 1.10. Kalitatea bermatzeko kanpo-zikloa
1.2 jarraibidea. Zentroko irakaskuntzak ikasleei bideratzeko modua	1.3. Ikasleen ebaluazioa	1.3 Ikaslea, irakaskuntza eta ebaluazioa oinarritzat hartzen dituen ikaskuntza 1.4 Ikasleen onarpena, aurreratzea, aintzatespena eta ziurtagiria
1.3 jarraibidea. Zentroko langile akademikoen kalitatea bermatzeko eta hobetzeko modua	1.4. Irakasleen kalitate-bermea	1.5. Irakasleak
1.4 jarraibidea. Zentroko baliabide materialak eta zerbitzuak kudeatzeko eta hobetzeko modua	1.5. Ikasteko eta ikasleari laguntzeko baliabideak	1.6. Ikasteko eta ikasleari laguntzeko baliabideak
1.5 jarraibidea. Zentroko emaitzak aztertze eta kontuan hartze modua	1.6. Informazio-sistemak	1.7. Informazioaren kudeaketa
1.6 jarraibidea. Zentroko tituluei buruzko informazioa argitaratzeko modua	1.7. Jendaurreko informazioa	1.8. Jendaurreko informazioa

1. taula. AUDIT programaren jarraibideen eta [2005eko eta 2015eko ESGetako](#) 1. kapituluaren arteko harremana

Unibasq-ek urte horretan bertan egin zuen bat programa horrekin eta Euskal Herriko unibertsitateek beren zentro, unibertsitate, eta/edo fakultate eta eskoletarako kalitate-sistema dagokion denboran diseinatzeko, hedatzeko, egokitze eta garatzeko oinarriak ezarri zituen, zentroak, unibertsitateak, eta/edo fakultateak eta eskolak zerbitzuen, instalazioen, irakasleen, aholkularitzaren, orientabidearen eta abarren bitartez egiturazko estaldura emateko ardura duten unitatetzat hartuta, irakaskuntzek beren maila desberdinetan (gradua, masterra eta doktoregoa) Goi-mailako

Hezkuntzaren Europako Esparruaren (GHEE) kalitate-eskakizunak eta -estandarrek beteko dituztela bermatzeko.

Helburu hori lortzeko, Unibasq-ek programari buruz eskuragarri zegoen dokumentazioa eta ANECAk ebaluaziorako garatu zuen aplikazioa erabili zituen. Aplikazio horretan honako elementu hauek zeuden:

Diseinurako tresnak:

- Unibertsitate-prestakuntzaren Kalitatea Bermatzeko Sistemak diseinatzeko gida
- Unibertsitate-prestakuntzaren Kalitatea Bermatzeko Sistemak diseinatzeko jarraibideak
- Diagnostikorako tresnak

Ebaluaziorako tresnak:

- Unibertsitate-prestakuntzaren Kalitatea Bermatzeko Sistemen diseinua ebaluatzeko gida
- I. ERANSKINA. Jasotako dokumentazioa aurretiaz berrikusteko protokoloa
- II. ERANSKINA. Zentroen Kalitatea Bermatzeko Sistemen diseinua ebaluatzeko protokoloa
- III. ERANSKINA: Ebaluazio-txostenaren eredua

Hasiera batean, AUDITek kalitate-sistemaren diseinuan jarri zuen bereziki arreta; programa horren bitartez lortu nahi zen ebaluazioari eta hobekuntzari buruzko politikak, irismena, prozedurak eta sistema koherenteak izateaz gain, eragileak eta, batez ere, zentroaren kalitate-estrategiarako baliagarriak izatea, kontuan hartuta, gainera, denboran jarraitzeko aukera izan zezatela.

Pixkanaka, ebaluazio-irizpideak eratuz joan ziren kanpoko berrikuspenei, konpromisoari, irismenei eta egindako proposamenen diseinuaren zorrotzasunari esker eta proposamenak praktikan jarri zirelako zentroetan.

2008an, Euskal Unibertsitate Sistemako (EUS) unibertsitateetan aurkezteko eta unibertsitateak prestatzeko jardunaldi batzuk egin ziren eta KBSak diseinatzeko jarraibideak eman ziren; jardunaldi horien ondoren, programaren bigarren fasea jarri zen abian KBSen diseinuak ebaluatzeko deialdi pilotu bat eginez. Orduz geroztik gaur egun arte, Euskal Unibertsitate Sistemako zentro guztiek beren KBSaren diseinua aurkeztu dute ebaluatzeko. Hala eta guztiz ere, UPV/EHUko zentroak berregituratu direnez, ezinbestekoa izango da elkartu diren KBSen beste ebaluazio bat egitea. Aurreikusten da ebaluazio hori 2018tik 2019ra bitarteko aldi egingo dela.

Unibasq-i dagokionez, esan daiteke AUDIT programa esperientzia arrakastatsua izan dela, ahalbidetu duelako unibertsitate guztiek ikustea beren kalitate-sistemak nola ezartzen eta heltzen ziren. Baina AUDIT ez da geldirik dagoen programa bat: bere helburuak betetzeko, etengabeko aldaketak behar ditu. Ildo horretan, bere autoebaluazioa ere egiten du, eta, horrenbestez, etengabe ari da hobetzen. Aldaketak ez dira handiak txikiak baizik, baina etengabe bilakatzen ari dela erakusten dute.

Erakundeen egiaztapen-prozesua berehala jarriko denez abian eta, ondoren, Graduetako eta Masterretako egiaztapenak berrituko direnez, AUDITek protagonismo handia hartuko du prozesu horien ebaluazio-ardatza eratzerakoan. Ildo horretan, litekeena da bere lan-metodologian aldaketa batzuk egin behar izatea.

Egon litezkeen aldaketa horien norabidea zein izango den jakitea erraza ez den arren, ausartuko gara iradokitzena seguruenik eztabaidan unerren batean azalduko diren gai batzuek zerikusia izango dutela ebaluazio-ikuspegiak aldatzearekin, eraginkortasun-neurriekin, elementu nagusiak bilatzeko sinplifikatzearekin, irakaskuntza-metodologietan eta -ikuspegietan izango den berrikuntzarekin eta ebaluazio-prozesuaren metaebaluazioarekin eta, agian, arriskuei buruzko azterketa bat sartzearekin.

Ebaluazio-ikuspegiari dagokienez, uste dugu arreta egitura-gaietan eta prozesu-gaietan jarri ordez gehiago hartuko direla kontuan lortzen diren emaitzak, baina emaitza horiek ez dira errendimendu akademiko gisa neurtuko, baizik eta eskuratutako kompetentzien egokitasuna eta maila neurtuko dira, eta, horrenbestez, lortu ahal izango duten enpleguaren kalitatea neurtuko da; horrez gain, ikuspegiak eta metodoek emaitzetan zenbateraino eragiten duten balioetsiko da, baita emaitza horiek tituluan jartzen diren itxaropenei erantzuten ote dieten ere. Litekeena da adierazleen pertsonalizazioa Agentziek iradokitzen dituztenetik haratago joatea, eta neurtzeko unitate berrien definizio horretan unibertsitateetatik kanpoko beste agente batzuk sartzea. Aurreikus daitekeen aldaketa horretaz gain, normala da proposatzea sistemak egokitzapen txikiak behar dituela tituluen ezagutza-adarraren arabera eta nolabaiteko bereizketa egotea adarren eta hezkuntza-mailen arabera.

Era berean, litekeena da irizpide nagusiei buruzko eztabaida bat egitea, egiaztapenaren emaitzan eragin handiena duten irizpideei buruzkoa, eta era horretan, prestaketa-lana eta AUDIT programak berekin dakarren ondorengo ebaluazio-lana erraztea. Halaber, aztertu beharko da ebaluazio-sistemak aukera ematen duen mailaren arabera egiaztapena egiteko (adibidez, lorpen-maila desberdinak bereiziko dituzten 3 edo 5 maila) edo, orain arte bezala, onartzeko/baztertzeko metodoarekin jarraituko den.

Ikasketa-planetan, suposatu behar da unibertsitateek elkarrengandik bereiztea bilatuko dutela, eta, ildo horretan, AUDITek eskatuko du espazio bat irekitzea irakaskuntza-metodologietan berrikuntzari balioa emateko eta programa hori sartu behar den eta emaitzetan zer eragin duen aztertzeko. Langileei, irakaskuntza- eta

ikerketa-ekipamenduetan inbertsioak egiteari eta emaitzek eta ikerketa-ildoek irakaskuntzan duten eraginari eta elkarrekintzari buruz (bereziki masterrean eta doktoregoan) unibertsitateek dituzten planek seguruenik beren lekua izango dute etorkizuneko AUDITen. Ikasleen lan-kargari buruzko azterketa eta karga horren koherentzia ere ezin dira aldaketa horietatik kanpo utzi, efizientziari buruzko azterketa ere egin beharko baita sarreren eta irteeren profilak kontuan hartuta. Laburbilduz, paradigma-aldaketa batez hitz egiten ari gara; izan ere, programa horrek irakaskuntza oinarritzat hartu ordez ikaskuntza hartuko baitu.

Programaren hirugarren fasea, KBSen ezarpena ziurtatzeari buruzkoa, 2013an jarri zen abian deialdi pilotu baten bitartez. Deialdi horretan bi zentrok hartu zuten parte. Hasieran dokumentazio erkide bat garatu zen programan parte hartu zuten agentzien artean, eta, ondoren, agentzia bakoitzaren berezko ezaugarrietara egokitu zen.

KBSen ezarpena egiaztatzeko dokumentazio eguneratua [lotura](#) honetan aurki daiteke, eta, Unibasq-en kasuan, honako elementu hauek ditu:

- Kalitatea Bermatzeko Sistemen ezarpena Ziurtatzeko Gida
 - I. eranskina. KBSaren ezarpenaren ziurtagiria eskatzea
 - II. eranskina. KBSaren dokumentazioan egindako aldaketen txostena
 - III. eranskina. Kanpo-ebaluazioaren txostena
 - IV. eranskina. Hobekuntza-ekintzen plana
 - V. eranskina. KBSaren ezarpena ebaluatzeko tresna

Lortutako emaitzak ondorengo taulan laburbiltzen dira:

Unibertsitatea	Zentroak	Ziurtagiriaren diseinua	Ezarpenaren ziurtagiria
Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitatea 	13+7 (berriak)+3 ¹	16	6
Universidad de Deusto / Deustuko Unibertsitatea 	5+1 ¹	6	5 + 1 ²
Mondragon Unibertsitatea 	4	4	3 + 1 ²

¹ Atxikitako zentroak.

² Oraindik ez da ezarpenaren ziurtagiriari buruzko txostena egin (2018ko apirila-maiatza).

Horrez gain, 2016az geroztik, eta Euskaliten eta Unibasq-en arteko lankidetzahitzarmenari esker, zentroetako KBSaren ezarpenari buruzko baterako ebaluazioa egin daiteke Euskaliten Kudeaketa Aurreratuaren Ereduari dagokionez (KAE) eta Unibasq-en AUDIT programari dagokionez, eta ahalbidetzen da bi zigilu edo ziurtagiri lortzea bisita bakar batekin. UPV/EHUko bi zentrok hasieratik hartu dute parte ekimen honetan, eta, AUDIT ziurtagiriaz gain, Euskaliten zilarrezko A lortu dute (UPV/EHUko Zientzia eta Teknologia Fakultatea eta Gasteizko Ingeniaritza Eskola).

2013tik 2017ra bitarte, KBSen ezarpenaren ziurtagiriari buruz egindako txostenen barruan, honako hauek nabarmentzen dira Euskal Unibertsitate Sistema osoan errepikatzen diren indar gisa:

1. Kalitatearen kultura
2. Prozesuak monitorizatzen laguntzen duten aplikazio informatikoak erabiltzea
3. Lidergoa
4. Ezarpenari jarraipena egiteko metodologia edo sistematika
5. Sistema ezartzeko aukeratutako langileak.

Zentrozen jardunbide egoki edo indar indibidual gisa honako hauek nabarmenduko genituzke:

1. Deustuko Unibertsitatean barne-auditoriak egin dira sistematikoki.

2. Mondragon Unibertsitatean enpresen eta ikasleen partaidetza-maila handia izan da erabakiak hartzeko garaian eta interes-taldeen inplikazioa ere bai.
3. UPV/EHUn modu positiboan balioetsi dira komunikazio-plana eta ikaskuntzari, laneratzeari eta interes-taldeen gogobetetasunari buruzko emaitzen inguruko informazioa emateko iturriak.

Hobetu behar diren gaien artean, urtero eta zentro gehienetan errepikatzen direnak, honako hauek nabarmendu behar dira:

1. Interes-taldeen partaidetza sustatzea, eta bereziki ikasleena, irakasle eta ikertzaileena eta administrazioko eta zerbitzuetako langileena.
2. Barneko nahiz kanpoko komunikazio-bideak sustatzea eta haien eraginkortasuna neurtzea.
3. Komunikazio-planak garatzea.

Urtero, hiru unibertsitateetako zentroek “kudeaketari buruzko urteko txosten” bat egiten dute; txosten horretan beren KBSaren berrikuspena laburbiltzen dute eta beren hobekuntza-ekintzak eta lortutako emaitzak biltzen dituzte. Dokumentu hori KBSen jarraipena egiteko erabiltzen da, bai titulazioen jarraipena egiteko programarako, bai haien egiaztapena berritzeko.

Azkenik, espero behar da administrazio publikoan hedatzen diren gardentasun-neurriek AUDIT ere barnean hartzea, horrek eskatuko du erantzukizun sozialari buruzko irizpideak sartzea, esate baterako, iruzur akademikoa kontrolatzeari, ingurumen-babesari, baliabide ekonomikoen kudeaketa efizienteari buruzkoak, baita metaebaluazioari buruzko irizpideak garatzeko premia ere. Irizpide horiek ahalbidetuko dute AUDIT kalitatea bermatzeko ikuspegi batetik etengabeko hobekuntzako beste ikuspegi batera eraldatzea.

Unibasq-en AUDIT batzordea. 2018ko apirila.